



2021/02/18

# ARABA EUSKARAZ 2021

## BAKARDADEAK GARAITU ZITUENAK IKUSKIZUNA OTSAILAREN 28AN 12:00ETAN GRANJA KIROLDEGIAN

Laudio Ikastolak Araba Euskaraz 2021 kanpainako kultur programaketaren lehen ekitaldia burutuko du otsailaren 28an. Estreinako hitzordu honetan, bertsolaritza, euskal dantzak, balleta eta zuzeneko musika uztartzen dituen "Bakardadeak garaitu zituenak" ikuskizuna eskainiko dugu Audioko Granja kiroldegian, eguerdiko 12etan. Sarrerak Araba Euskaraz on-line dendan erosi ahalko dira 5 eurotan, [www.arabaeuskaraz.eus](http://www.arabaeuskaraz.eus) helbidean.

sarrerak  
erosi



### BAKARDADEAK GARAITU ZITUENAK IKUSKIZUNA

"Bakardadeak garaitu zituenak" ikuskizuna Ameriketara artzain bezala lanera joandako Txomin Malaxetxebarria gazte euskaldunaren bizitzan oinarrituta dago. Koldo San Sebastian kazetariaren artikulua batean izan zuen haren berri Jose Antonio Eluk, proiektuaren sortzaileak, eta abesti baterako gaia bihurtu zuen, gerora ikuskizun honetarako bizkarrezur bilakatu.

XIX. mende amaiera eta XX.aren hasierako Euskal Herriko egoerak, maiorazkoa, probrezia zein bestelako askotariko arazoak zirela medio, amets amerikarra jorratzera eraman zituen hainbat migratzaile euskaldun. Horrela abiatu zen Txomin Malaxetxebarria Gizaburuagatik 1912an, 19 urte zituela.

Ikuskizunak berriz, amets huraren bila joan eta hainbatek bizitako bakardade eta etsipena dakar gogora. Izan ere, Nevadako lur sail desertikoetan bizitako egoera latzak burua galtzera eraman zuen protagonista, kaleetan eskean ibili ondoren ospitaleratu ta bukatu zuelarik. Bertoko erizain bat eta beste gaixo bat hil zituen eta 1952 urtean heriotza-zigorra jaso zuen gas ganberan.

zabal bideak  
ARABA EUSKARAZ 2021 LAUDIO

Bakardadeak  
garaitu zituenak

BERTSOLARITZA, DANTZA ETA MUSIKA IKUSKIZUNA

Felipe Zelaeta  
eta Ricardo Gonzalez  
de Durana  
BERTSOLARIK

Mikel Etxebarria  
eta Shuyana Izaga  
DANTZARIK

Ardi Ilun  
Blues Band  
taldea  
ZUZENKO  
MUSIKA

Jose Antonio Elu  
ZUZENDARIA

Otsailaren 28an 12:00etan, Audioko Granja kiroldegian  
Sarrera: 5€ /Aldez aurreko salmenta [www.arabaeuskaraz.eus-en](http://www.arabaeuskaraz.eus-en)

Antolatzaileak: ikastolabizitza

Babesleak: LAUDIO UDALA, Arabako Foru Aldundia, Vital

### BERTSOLARITZA, DANTZA ETA MUSIKA

Ikuskizunean bertsolaritza, dantza eta musika uztartzen dira. Ricardo Gonzalez de Durana bertsolariak Txomin Malaxetxebarriaren papera antzezten du eta Felipe Zelaietak narratzailearena. Shuyana Izagak eta Mikel Etxebarriak dantza tarteak taularatzen dute kontakizunean eta zuzeneko musika Ardi Ilun Blues Band taldearen esku dago: Alfonso Rojo "Gorri", bateria; Alberto de la Casa, baxua; Nando de la Casa, teklatuak; Mikel Lacalle, ahotsa eta gitarra; Felipe Zelaieta, txistua eta gitarra; Jose A. Elu, gitarra.